



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Plan estrategikoa Gizarte Ekintza 2008-2011



Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social
Ugasko 3, 2ª Planta.
48014 BILBAO

Moldiztegia: Gráficas Munguia

Diseinua: Logaritmo

ISBN: 978-84-7752-436-X

Lege Gordailua: BI- 2005-08

I. KAPITULUA	SARRERA.	5
II. KAPITULUA	PLAN ESTRATEGIKOAREN JUSTIFIKAZIOA	9
III. KAPITULUA	BERAU PRESTATZEKO JARRAITUTAKO METODOLOGIA.	13
IV. KAPITULUA	EGOERA ESTRATEGIKOA	17
	1. Aurrekontuaren bilakaera.	20
	2. Plantillaren bilakaera	20
	3. Sailaren egitura	20
V. KAPITULUA	XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALOREAK.	23
	1. Xedea eta baloreak	25
	2. Ikuspegia.	25
VI. KAPITULUA	AMIA	27
VII. KAPITULUA	HELBURU ETA EKINTZEN ESKEMA OROKORRA.	33
VIII. KAPITULUA	HELBURUAK ETA EKINTZAK	37
IX. KAPITULUA	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	59
ERANSKINA	AZPIEGITURA PLANA (2008-2011).	63



I. kapitulua

Sarrera

Azkeneko hamarkada hauetan Bizkaiko gizarteak izandako aldaketek nabarmen handitu dituzte erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuek erantzun beharreko eskariak eta beharrizanak. Gizarte ekintzaren xede diren biztanleen artean aldaketak gertatu dira (bizi-itxaropena handitu da eta biztanleriak zahartu dira), babesean hain garrantzitsua eta oinarritzkoa den familia bezalako instituzioan bilakaera egon da (unitateak gero txikiagoak dira) eta, gainera, kultur aldaketak ere egon dira gizarte zerbitzuei dagokionez (biztanle guztien zerbitzuean dagoen eskubide gisa hautematen hasi da).

Paraleloan, erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen, baliabideen eta prestazioen sarea eraikitzen eta zabaltzen joan da. Hau, hirugarren sektorearen etengabeko laguntzarekin batera, autonomia sustatzeko, laneratzeko eta mendekotasuneko egoerak laguntzeko beharrezan erantzuten saiatzen da.

Agiri honetan Bizkaiko Foru Aldundiak hurrengo urteotan gizarte arloan garatu nahi dituen

jardun garrantzitsuenak jasota daude. Hauek ebaluazio eta plangintzaren emaitza dira, hauetan, besteak beste, Gizarte Ekintza Sailaren zuzendaritzak eta langileek, erakunde laguntzaileek (Hirugarren Sektorea) eta zerbitzu eta prestazioen hornitzaileek parte hartu dute.

Plan hau aurreko Plan Estrategikoaren (2004-2007) oinordekoa da, baina hura ez bezala, kanpoaldera orientatuago dago, Gizarte Ekintza Sailak hurrengo lau urteotan garatu nahi dituen ekintza zehatzak deskribatzera, hain zuzen.

Bere helburua gizarte ekintzan parte hartzen duten pertsonen, erakundeen eta entitateen jarduna hobetzea da, beharrezanetara egokitzeko asmoz. Ondorioz, lanerako agiria izateko borondateaz jaio da, Gizarte Ekintza Sailaren jarduna orientatzeko eta erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen sistema iraunkorra sendotzeko gidariburutzat balio duena eta, beste eragile batzuen erantzunak desaktibatu gabe, Bizkaiko gizartearen izaten ari den aldaketa handiei erantzutea ere ahalbidetzen duena.

II. kapitulua

Plan Estrategikoaren justifikazioa

Sailaren ekintza, modu proaktiboan, inprobisaziotik edo ingurunearen aurreko erreakzio hutsetik ihesean, orientatu eta erabilgarri dauden baliabideak –giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak– ebatzi eta lehenesteaz gainera, jardunei erantzukizunak, baliabideak eta epeak emanez, Plan Estrategikoa prestatzeko orduan hurrengo helburu hauek hartu ditugu kontuan:

1. Aurreko plan estrategikoa onetsi zene-tik errealitatean gertatutako aldaketen azterketa egitea, bai eta dirauten joera esanguratsuak identifikatzea ere, batzuek eta besteek foru eskumeneko gizarte zer-bitzuen behar eta eskariaren gainean du-ten eragina zehaztuta.
2. Sailaren beraren barruko azterketa ere eguneratzea –eta erakunde autono-moekin eta erakunde laguntzaileekin duen erlazioarena– atzemandako beha-rrizanei erantzun egokia ematen la-guntzeko indartu edo hobetu beharreko alderdiak identifikatu ahal izateko.
3. Sailaren nortasuneko (xedeak eta baloreak) eta bere ikuspegiaren hainbat elementu eguneratzea, agian hauek birformulatu behar baititugu egindako azterketaren arabera.
4. Sortutako parte-hartzeko prozesuaren beraren bidez, laguntzaileekin –oraingoak zein etorkizunekoak–, elkar ezagutzen eta hauekiko harremanean sakontzea.



III. kapitulua

Berau prestatzeko
jarraitutako metodologia

Adierazi bezala, Plan Estrategikoaren prestaketan Gizarte Ekintza Saila bera osatzen duten Zerbitzu guztietako pertsona eta lantaldeek parte hartu dute, bai eta Sailarekin bere jardun-eremu guztietan elkarlanean aritzen diren erakundeek eta tokiko administrazioak ere.

Zehazki, 17 bilera egin ditugu (9 barnean eta 8 kanpoko agenteekin). Gainera, Zerbitzu Buruzagitzekin bilera bat eta Gizarte Ekintza Sailaren zuzendaritza-taldearekin beste hainbat bilera ere egin ditugu prozesu osoan zehar.

Gainera, bestelako tresna batzuk ere finkatu ditugu partaidetza sustatzeko, interesa zuten pertsona eta erakunde guztiek bere ekarpenak egin zitzaten ahalbidetuta, horretarako beharrezko ziren agiri eta tresna guztiak eskainiz Sailaren web orriaren bitartez.

Bestaldetik, Sailaren ekintza edo kudeaketarekin, modu batera edo bestera, lotura duten foru planak, eta beste administrazio publikoenak ere, aztertu ditugu eta horiekin lotutako jardun batzuk gaineratu ditugu.

Plana egiteko jarraitutako urratsak honako hauek izan dira:

1. Lan-prozesuaren diseinua eta Zuzendaritzako Batzordeak berau onestea.
2. Agiriak prestatzea eta tresnak diseinatzea taldeak dinamizatzeko, web orriaren bitartez planaren prestaketan parte hartzeko eta Sailaren zuzendaritzako taldeak egin beharreko lanerako.
3. 17 lantaldeen deialdia eta dinamizazioa.
4. Jasotako ekarpenen laburpena.

5. Jardunak kontrastatzea Zerbitzu Buruzagitzekin.
6. Ekarpen guztiak jasotzen dituen zirriborro teknikoa egitea Zuzendaritzako Batzordearentzat.
7. Zuzendaritzako Batzordeak bilerak egitea zirriborro teknikoaz gogoeta egiteko eta, bere ekarpenak erantsi ondoren, azken agiriaren edukia erabakitzeke.

Plan Estrategikoa prestatzeko garatutako metodologia, aurreko aldean bezalaxe, METAPLAN deritzonarena da.

Era guztietako bilerak eta taldeko lanak bideratzeko metodoa da, parte hartzen duten pertsonak ahalik eta gehien nahastea bilatzen duena. Hamabi bat pertsonako lan-bilerak egitean oinarritzen da. Bilera hauetan, partaide bakoitzak (modu aske, idatzi eta anonimoan), egoeraren diagnostikoari buruzko bere ikuspegia eta hobetzeko proposamenak ematen ditu. Jasotako informazioa edukien arabera taldekatzen da, lanerako lehen dokumentu bat prestatzeko, ondoren, honetatik abiatuta, Plan Estrategikoa idazten hasiko dira.

Metodo honek hainbat abantaila ditu:

- Bileretan partaidetza maila handitzen da.
- Kontuen garapenean eta emaitzen lorpean gardentasuna dago.
- Dokumentutako emaitzak eskuratzen dira lehen ideietatik ekintza planera arte.
- Bileretan denbora aurrezten da (ardatz nagusiari eusten zaio), bai eta zereginak egiteko orduan ere (definizio argiak eta partekatuak).



IV. kapitulua

Egoera estrategikoa

Azkeneko urteotan zehar Bizkaiko gizartean aldaketa esanguratsuak gertatu dira, gizarte zerbitzuen premian eta eskarian eragiten dutenak eta prestazioen eta kasu egindako beharizanen mota eta konplexutasuna nabarmen handitzea ekarri duten eta ekartzen ari direnak. Halaber, aldaketa hauek gizarte zerbitzuen erabiltzaileen profila dibertsifikatzea ere ekarri dute.

Biztanleriaren zahartzea eta mendekotasun egoeran dauden biztanleak edo ezintasunak dituzten helduak handitzea bezalako aldaketa esanguratsuak; egitura familiarraren aldaketak eta emakumeak lan-merkatuan sartzea; adin, sexu eta jatorriaren arabeko zaurkortasuna handitzea; adin txikiko pertsonen babesik ezaren arrisku-egoerak eta nerabegaroko bortxazko portaerak handitzea; emakumeen aurkako indarkeria handitzea; heldu eta adin txikiko etorkinen agerpen handiagoa; buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzako arreta sozialaren eskaria handitzea; edo ongialdi ekonomikoko eta enplegu bete teknikoko egoera batean ere laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak egotea.

Alderdi hauetako batzuk, biztanleriaren zahartzea esaterako, duela urteetatik gizarte ekintza egituratu izan duten joerak dira. Hauek, etorkizunean, mantentzeaz gainera, handitu ere egingo dira.

Testuinguru honekin bat, azkeneko legegaldietan zehar, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailean aldaketa handiak gertatu dira. Aldaketa hauek Sailaren beraren aurrekontuetan, egituran eta barneko antolaketan zein hiritarrei eskainitako prestazioetan eragina izan dute.

Gertaerarik garrantzitsuena eta gainerako aldaketa horiek baldintzatzen dituena Bizkaiko

prestazioetan eta gizarte zerbitzuetan egondako hazkundea da. Aurreko planean adierazi badugu urte batzuen buruan Foru Aldundiak gizarte zerbitzuetara zuzentzen duen aurrekontua bikoiztu dela, hau 2008. urteko ekitaldian %129,67 bikoiztu da 2003. urtetik. Horrela bada, Foru Aldundiak egindako gastuaren 100 euro bakoitzeko 38,56 euro honetara zuzentzen dira. Ondorioz, baliabide materialak eta pertsonalak, oraindik ere, handitzen dira eta, prestazioak eta zerbitzuak eta horietara jotzen duten pertsonak ere hazi dira.

Bizkaiko abagune ekonomikoak eta gizarte zerbitzuen gastu-igoerak –legegintzaldi bat baino gehiagotan zehar– erantzukizun publikoko zerbitzu eta prestazioen sarea egituratzea ahalbidetu dute. Hala ere, sare hau sendotu behar da beste agente batzuekin elkarlanean eta, aldi berean, Bizkaiko gizarte inklusibo eta solidarioa eraikitzeko beharrezko diren beste erantzun batzuk ere ahalbidetuz.

Aldi berean, oraingo testuinguruak, zerbitzuak eta prestazioak gehitu eta kontsolidatzeaz gainera, horiek erabiltzaileen profilaren dibertsifikazioaren ondorioz dauden diferentzietara –adin, sexu, jatorri, autonomiarenak...– egokitzea ere eskatzen duela dirudi. Dibertsifikazio honek, berriz, esku-hartzeko ia esparru guztietan eragiten du. Horretarako, generoko, belaunaldien arteko eta kultur arteko perspektibak hartuta.

Modu paraleloan eta, besteak beste, beharizanen gehikuntza eta erantzukizun publikoko zerbitzuen sarearen konfigurazioaren eta biztanleek, oro har, honen gainean duten ezagutza handiagoaren ondorioz, hiritarren espektatibek eta eskariak handitzen jarraitzen dute gizarte-zerbitzuen sistema publikoari dagokionez, bai eta arretaren kalitatearekin lotuta ere.

Azkenik, beste alderdi oso esanguratsua bat arau-esparruaren gainean egin eta aurreikusitako bilakaera da. Berau orientatuta dago epe laburrean (zortzi urte) gizarteko prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea aitortzeko gauza den gizarte zerbitzuen euskal sistema, erantzukizun publikokoa, egituratzera. Horretarako, baina, azkeneko urteotan egindako ahaleginari eutsi beharko zaio eta, aldi berean, sistemaren iraunkortasuna bermatzen duten hainbat neurri ere hartu beharko dira.


Nolanahi ere, oraindik ere beharrezkoa da arau-esparruaren garapenean aurrera egitea eta euskal administrazio publikoen eta beste gizarte eragile batzuen laguntza handitzea EAEn eta Bizkaian gizarte zerbitzuen sistema egituratzeko; behar bezala artikulatuta dagoena eta, aldi berean, malgua dena pertsona, kolektibo eta lurralde bakoitzaren ezaugarri eta beharrezanetara egokitzeko.

Azken batean, aurrean momentu erabakigarria dugu. Eta sistema baten kontsolidazioarekin, hain zuzen, lotutako arriskurik gabekoa ez bada ere –burokratizazioa, erantzunen zurruntasun eta moteltasuna, hirugarren sektoreak tradizionalki egindako eginkizunen galera, abagune ekonomikoaren aldaketa gertatuz gero sistemaren iraunkortasunerako zailtasunak...– aukera ezin hobea da gizarte zerbitzuen sistema kontsolidatzeko eta egiazko erronka bere eraikuntzan nahasita dauden aktore guztien sormen eta laguntza arduratsurako. Honek guztiak sistemari, oro har, bizi dugun momentu historikoaren eta Bizkaiko gizarteak aurrean dituen aldaketa handien mailan egotea ahalbidetu behar dio.

1. AURREKONTUAREN BILAKAERA

Gizarte Ekintza Sailak izandako aurrekontuaren hazkundeak erakusten du Bizkaiko Foru Aldundiak apustu argia egin duela gizarte politiken alde. Zifrak argiak dira, 2003. urtetik aurrera Gizarte Ekintza Sailaren aurrekontua %129,67 handitu da.


Aurrekontuaren bilakaera



2. PLANTILLAREN BILAKAERA

Baliabide ekonomikoen hazkunderekin batera plantillaren hazkundera ere gertatu da. 2003. urtean Gizarte Ekintza Sailari esleitutako postuak 257 ziren eta 2008. urterako, berriz, 329 dira. Ondorioz, 5 urte hauetan %28ko hazkundera egon da.


Plantillaren bilakaera



3. SAILAREN EGITURA

Martxoaren 18ko 38/2008 Foru Dekretuak Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onetsi zuen. Bertan lau zuzendaritza nagusi zehaztuta daude:

- Administrazio eta Proiektuen Zuzendaritza Nagusia.
- Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.
- Autonomia pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- Plangintza, Azterlan eta Ikuskapeneko Zuzendaritza Nagusia.





V. kapitulua

**Xedea, ikuspegia
eta baloreak**

1. SAILAREN XEDEA ETA BALOREAK

XEDEA

Bizkaiko Foru Aldundiak bere jardunaren oinarritzko helburutzat hiritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen laguntzea, bai eta Bizkaiko gizarte osoaren garapen bidezkoa, elkartasunezkoa eta iraunkorra ere. Hori lortzeko, Gizarte Ekintza Sailak xedetzat zailtasun gehien dituzten pertsonak bitzta duina izaten, bere eskubide guztiez gozatzeko eta gizartean osoko parte hartzen laguntzen dieten zerbitzuak eta baliabideak eskaini eta bermatzea du.

Helburu horretarako, Gizarte Ekintza Sailak, bere eskumenen esparruan eta gizarte zerbitzuen arloan esku hartzen duten gainerako erakundeekin lankidetzan, politika eta ekintza integratzaile eta normalizatzaileak garatuko ditu, pertsona guztiek parte hartu ahal dezaketen gizarte inklusiboa ahalbidetzen dutenak.

BALOREAK

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere gizarte ekintzaren funtsezko balio gisa, pertsonen eskubideak eta duintasuna aldezte du, batez ere egoera ahulagoan dauden horiei dagokienez. Ondorioz, Gizarte Ekintza Sailak dituen baliabideak jarriko ditu gehien behar duten pertsonen zerbitzuean, ekintza hauek gizartearen zati batek partekatu eta zalantzan ere jartzen baditu ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte inklusiboa, gizarte zerbitzuetatik, eta pertsonen duintasun eta eskubideen defentsarekin batera, eraikitzen laguntzen duten printzipio eta baloreak defendatu eta sustatzen ditu:

- Botere publikoen erantzukizuna.
- Zerbitzuen berdintasuna eta unibertsal-tasuna.
- Banaketa-justizia.

- Iraunkortasuna.
- Elkartasuna egoera ahulena duten pertsonekin.
- Hiritarren parte-hartzea.
- Osagarritasuna familiarekiko.
- Plangintza pertsonarengan oinarrituta.
- Irisgarritasuna eta diseinua pertsona guztientzat.
- Kultur aniztasuna.
- Onestasuna eta jarduteko irizpide etikoak.
- Duintasuna lan-harremanetan.

2. IKUSPEGIA

Gizarte Ekintza Sailak tresna arin eta eraginkor bihurtu nahi du, erantzukizun publikotik, Bizkaiko hiritarrengan eragiten duten beharri-zaiei eta gizarteak planteatzen dituen eskari berriei erantzun dibertsifikatu, pertsonalizatu eta berritzaileak emateko gauza dena.

Premiako egoera larrienei eta urgenteenei erantzun egokia emateaz gainera, Gizarte Ekintza Sailak nahi du Bizkaiko hiritarrek erakunde honetan baliabideak aurki ditzan: ezintasunen bat dutenen edo mendekotasuneko egoeran daudenen autonomia pertsonala sustatzen laguntzen dietenak; eskusioko egoeran edo arriskuan daudenen gizarteratzea lortzeko; tratu txarrak edo babesgabetasuna pairatu dituzten emakumeen eta adin txikikoen babesik ezaren egoerei aurre egiteko; eta kolektibo zaurkorren mendekotasuna eta arriskuko egoerak prebenitzeko.

Gizarte Ekintza Sailak nahi du Bizkaiko hiritarrek senti ahal dezaten Foru Aldundiak bere ongizatea jagoten duela zailtasuna handiagoa denean, hurbil dagoela eta irisgarria dela, erantzuteko orduan eragingarria dela, etengabeko hobekuntzarekin engaiatuta dagoela eta bere eskubideak jagon eta babesten dituela.



VI. kapituluu

AMIA

AUKERAK

- Ongizatearen Estatua kontsolidatzea, gizarte zerbitzuen sistemaren eta horietarako eskubide subjektiboaren garapena.
- Gizarte zerbitzuen sistema publikoak enplegu eta jarduera ekonomikoaren gainean duen aldeko inpaktua.
- Hiritarrek gizarte zerbitzuak hobeto ezagutzea eta hauen gaineko aldeko balorazioa egitea, hauen eskari eta kalitatearen eskaera handiagoarekin batera.
- Esklusio, mendekotasun, ezintasun, babesgabe eta tratatu txarren egoerekiko gizarte sentsibilizazio handiagoa.
- Gizarte zerbitzuen sistema publikoa kontsolidatzeko beharraren gainean oinarritzko adostasun politikoa egotea.
- Esparru sozio-sanitarioa mailaka konfiguratzeko.
- Hirugarren Sektorearen egituratze eta profesionalizatzea, dituen bitartekoak handitzea eta hauen artean eta administrazio publikoekin duen artikulazioa hobetzea.
- Pertsonarengan zentratutako arretako ikuspegiak garatzea.
- Kalitatearen kultura sartu eta garatzea.
- Sektorean prestakuntza, profesionalizazioa eta espezializazioa handitzea.
- Sektorean plangintza estrategikoko prozesuak eranstea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak garatzea. Hauek erabiltzaileentzako arreta hobetzea ahalbidetzen baitute.
- Immigrazioa, balore berriak, kultur aberastasuna, aberastasuna eta ongizatea dakartzan neurrian.
- Adineko pertsona autonomoen eta gizartean parte hartzeko gaitasuna dutenen kolektibo geroz eta zabalagoa egotea.
- Gizarte zerbitzuen sistemaren normalizazioa, biztanle osoenganako bere orientazioa sendotzen duen neurrian.
- Gizarte zerbitzuen sare publikoa kontsolidatzen eta eskubide subjektibo gisa konfiguratzeko laguntzen duen araudi berriaren garapena.

MEHATXUAK

- Gizarte zerbitzu oinarrizko eta espezializatuen eskariaren hazkunde nabarmena.
- Beharriaren dibertsifikazio handiagoa eta erabiltzaileen profilaren geroz eta handiagoko konplexutasuna.
- Populazio-piramidearen alderantzpena eta adineko pertsonen artean pobrezia eta mendekotasuneko egoeren nagusitzea.
- Gizarte laguntza informala txikitzea.
- Adin txikikoengan eragiten duten familiaren aldaketak.
- Generoko indarkeriaren biktima diren emakumeengan bereziki eragiten duten portaera antisozial eta bortxazkoen iraunkortasuna eta nerabezaroan portaera disruptiboak haztea.
- Enplegu-kolokatasuna eta babesgabe, eskusio eta bazterkeriako egoerak. Hauek, gehien bat, emakumeengan, gazteengan eta etorkinengan eragiten dute.
- Pobrezia, langabeziako egoeren iraunkortasuna eta eskusioeko egoera jakin batzuen kronifikazioa.
- Etorkinek gizarte zerbitzuen bidezkoa ez den arreta eskatzea, etxebizitza, enplegu edo bestelako zerbitzuetara jotzeko aukerarik ezaren bere beharriari kasu ez egitearen ondorioz.
- Ziurgabetasuna ziklo ekonomikoaren gainean.
- Desorekako arriskua sistemaren beharrezko malgutasunaren eta administrazioak gizarte zerbitzuen gainean beharrezko ere dituen planifikazio, kontrol eta zaintzako eginkizunen artean.
- Kolektibo jakin batzuei dagokienez eta administrazio publikoaren aldetik jasotzen dituzten zerbitzuei buruzko gizarte aurreiritziak eta sinesmen faltsuak errotzea.
- Baliabide publikoek bere eginkizuna ez betetzea pertsona batzuek hauen gainean egin ditzaketen gehiegizko erabilera eta erabilera txarrarengatik eta, ondorioz, sistema bidegabe eta eragingabetzat hartzea.
- Gizarte zerbitzuen arloan arau-garapena oraindik amaitu gabea izatea.
- Administrazioaren mailen artean eta erakunde eta instituzioekin informazio, koordinazio eta eginkizunen mugaketa ezaren iraunkortasuna.
- Enpleguko politika aktiboen garapen urria.

INDARRAK

- Azkeneko urteotan egondako foru erantzukizuneko gizarte zerbitzu eta baliabideen garapena. Horri esker, erantzun espezifikoagoak, kalitate handiagokoak eta beharizan berrietara egokituta daudenak eskaini ahal ditugu.
- Gizarte zerbitzuak kontsolidatzea eta mailaka sarean antolatzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte ekintzaren eta baliabideak handitzearen alde egindako apustu politikoa.
- Sailaren langileen profesionaltasuna, kualifikazioa, erabilgarritasuna eta gaitasuna.
- Lan-prozesuen hobekuntza eta sistematizazioa, eta egituraren egokitzapena eta Gizarte Ekintza Sailaren ekintzaren orientazioa plan orokor eta sektorialen bitartez.
- Langileek eta gizarte eragileek parte hartzea planen prestaketan, eta sektoreko profesionalek ere interbentzioko prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Hirugarren sektorearekin harreman positiboa eta lankidetzakoa, eta elkarguneak egotea (lantalde mistoak, aholkuak esparruen arabera...).
- Gizarte Ekintza Sailean konpromisoa egotea kalitate eta etengabeko hobekuntzako ereduarekin, eta laguntzako kalitatea sustatzea Bizkaiko gizarte baliabide guztietan.
- Zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeei egonkortasuna ematen dieten finantzako sistemak garatzea hitzarmen eta itunen bitartez.

AHULEZIAK

- Administrazioiko izapidetza zailak eta iraupen luzekoak egotea.
- Premiazko arazo batzuei eta gizarteko aldaketa jakin batzuei erantzuteko denbora gehiegi ematea.
- Diziplina anitzeko erantzunak, hainbat zerbitzu, administrazio edo entitatetan ("mugako" kasuetan) eragiten dutenak, artikulatzeko zailtasunak.
- Hiritarrei informatzeko kanal bakarra ez egotea (zentralitak, egoitzak, etab.) eta zailtasunak erabiltzaileekin komunikatzeko orduan, administrazioiko hizkuntza ez oso ulergarria erabiltzailearen ondorioz.
- Modu planifikatuak jarduteko zailtasuna, kasu jakin batzuetan.
- Espazioen sakabanaketa eta beharizanetara egokituta ez egotea, bai eta lan-kargaren eta plantillaren arteko desdoikuntzak ere.
- Erakundeei ordaintzeko prozesuan bizkortasunik ez egotea.
- Erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintzen dituzten eta aurretik ere beste esparru batean horrela egiten zuten erakundeek barneratzeko eta administrazioarekin harremanetan egoteko sistema berrira egokitzeko beharra.
- Irizpideak, lan-sistemak eta Udaleko politika komunak diseinua koordinatzeko eta bateratzeko zailtasunak.
- Sailen arteko koordinazio eta komunikazio defizita egotea.



VII. kapitulua

**Helburuen eta ekintzen
eskema orokorra**

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharrianen eta eskarien, bai eta arlo honetan burututako jardun publikoen ondorioen gaineko ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.

- 1.1. Beharrianen eta eskariaren bilakaera ebaluatzea ahalbidetzen duten azterlanak egitea eta, beharrezkoa bada, sustatzea eta, zehazki, aldaketei aurre egitea ahalbidetzen duten prospekzioko azterlanak.
- 1.2. Jardun publikoen eragina ezagutzea, erantzunak doitzeko.
- 1.3. Errealitatea eta honetatik datozen erantzunak ezagutzea hainbat Behatokiaren bitartez.
- 1.4. Zuzeneko komunikazio-bideak edukitzea gizarte eragileekin ezagutza elkarri trukatzeko.
- 1.5. Laguntzea eta balorazioko tresna homogeneoak abiaraztea.
- 1.6. Sailaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea.
- 1.7. Gure prestazio eta zerbitzuetan laguntzako etikaren kultura ezartzea.
- 1.8. Sailaren hainbat jardun eremu planifikatzea.

2. HELBURU OROKORRA. Zerbitzuak aztertu, kontsolidatu eta handitzea adineko pertsonen eta ezintasuna duten pertsonen, babesgabeko arrisku-egoera larrian dauden adin txikiko pertsonen, gizarte beharrianak dituzten emakumeen, eskulsioko arriskuko pertsonen arloan, bai eta eremu soziosanitarioari dagozkionak ere.

- 2.1. Adineko pertsonen eta ezintasuna duten mendeko pertsonen arretara zuzendutako zerbitzuak handitu eta hobetzea.
- 2.2. Ezintasuna duten pertsonen autonomia sustatzera zuzendutako zerbitzuak eta baliabideak handitu eta hobetzea.

- 2.3. Buruko gaixotasun larri kronikotik datozen beharrian sozialei eta soziosanitarioei kasu egitea.
- 2.4. Bizkaian zahartze aktiboa sustatzeko baldintza optimoak sortzea.
- 2.5. Babesgabeko arrisku larriko egoeran dauden adin txikiko pertsona guztiei kasu egitea norberaren zerbitzu espezifikoen diseinuaren bidez (edo ibilbide berezituak eta espezifikoko diseinatuz problematikaren arabera).
- 2.6. Etxean tratu txarrak pairatu dituztelako edota eskulsioko arriskuan uzten dituzten bestelako kausengatik gizarte beharrianak dituzten emakumei kasu egitea.
- 2.7. Gizarte eskulsioko egoerak ezabatzea, pertsonen duintasuna zaintzen saiatuta, prebenitzeko zein arintzeko ekintzen bitartez.
- 2.8. Espazio soziosanitarioa sustatzea Osasun Sailarekin koordinatuta, beharrezko zerbitzuak sortuz.

3. HELBURU OROKORRA. Administrazio Publikoekin eta gizarte eragileekin (berezi hiruugarren sektorearekin) elkarlana sustatzea, bai eta hiritarrek Bizkaiko gizarte inklusibo eta solidario baten sustapenean parte har dezaten ere.

- 3.1. Koordinazioa eta elkarlana sustatzea administrazio publikoekin, bereziki Tokiko Administrazioarekin.
- 3.2. Gizarte ekintzan zerbitzuen hornitzaile gisa parte hartzen duten agenteekiko harremanetan sakontzea, hirugarren sektorean arreta berezia jarrita.
- 3.3. Hiritarren sentsibilizazio eta partaidetzako interes orokorreko gizarte jarduerak bultzatzea erakundeekin lankidetzan, bereziki hirugarren sektorekoekin.

4. HELBURU OROKORRA. Hiritarrentzako arreta hobetzea prestazio eta zerbitzuen sistema eragingarri, irisgarri eta ulergarriaren bidez, beti erabiltzailearengana orientatuta.

- 4.1. Hiritarrei gizarte prestazioei eta zerbitzuei buruz emandako informazioa hobetzea.
- 4.2. Gure prestazio eta zerbitzuetara jotzeko prozedurak hobetzea.
- 4.3. Hasitako etengabeko

VIII. kapitulua

Helburuak eta ekintzak

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharrianen eta eskarien, bai eta arlo honetan egiten diren jardun publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.

1.1. Beharrianen eta eskariaren bilakaera ebaluatzea ahalbidetzen duten azterlanak egitea eta, beharrezkoa bada, sustatzea eta, zehazki, aldaketei aurre egitea ahalbidetzen duten prospekzioko azterlanak.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Ettxerik gabeko pertsoneri erantzuteko beharren eta egoeraren azterlana egitea.	- Egindako azterlana. - Identifikatutako erantzuteko beharrian eta alternatiba kopurua.	2008
Garraio Sailarekin garraio irisgarriari buruzko azterlan batean laguntzea.	- Egindako azterlana eta plana.	2008
Azterlana egitea buruko gaixotasunetik eratorritako beharriaz buruz.	- Egindako azterlana.	2008
Generoko indarkeriaren azterlana eguneratzea.	- Eguneratutako azterlana. - Aurreko egoeraren aldean identifikatutako aldaketa kopurua.	2009
Mendekotasuna sortzen duten ezintasunen epidemiologiako txostenak egitea.	- Egindako azterlan kopurua.	2008
Etxeko esparruko nerabe erasotzaileei buruzko azterlana egitea.	- Egindako azterlana. - Identifikatutako erantzuteko beharrian eta alternatiba kopurua.	2009
Mendeko adineko pertsonentzako egoitzako plazen eta eguneko zentrokoen behar eta eskariari buruzko azterlanak eguneratzea, bai eta plaza publikoen beharra ere, hauetara jotzeko hainbat baldintzen arabera.	- Eguneratutako azterlan kopurua. - Plazen okupazioaren azterketa (oraingo egoera eta aurreikuspenak, eskarian eragiten duten faktoreak, okupaziorik ezaren ondorioak...). - Oraingo eta etorkizuneko beharrianen eta eskariaren identifikazioa. - Eskarian eragiten duten faktoreen identifikazioa. - Azterlanen bidez identifikatutako eskaintza eta eskariaren doikuntzara egokitutako helburu eta estrategia kopurua.	2009-2010
Bizkaiko esparruan ekintza boluntarioaren errealitatea ezagutzeko azterlana egitea.	- Egindako azterlana.	2009

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharrianen eta eskarien, bai eta arlo honetan egiten diren jardun publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.		
1.1. Beharrianen eta eskariaren bilakaera ebaluatzea ahalbidetzen duten azterlanak egitea eta, beharrezkoa bada, sustatzea eta, zehazki, aldaketei aurre egitea ahalbidetzen duten prospekzioko azterlanak.		
JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Esklusioko egoeran dauden pertsonentzako egoitzako eta egoitzatik kanpoko plazen beharren gaineko azterlana egitea .	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako beharren azterlana eginda. - Plazen okupazioaren azterketa (oraingo egoera eta aurreikuspenak, eskarian eragiten duten faktoreak, okupaziorik ezaren ondorioak ...). - Oraingo eta etorkizuneko beharrianen eta eskariaren identifikazioa. 	2009
Azterlana egitea familia-harrerari buruz. Honek, besteak beste, hartutako pertsonengan duen eragina ezagutu eta ebaluatzea ahalbidetzen du.	<ul style="list-style-type: none"> - Azterlana diseinatu eta egitea. - Harrerak hartutako pertsonengan duen eragina ebaluatzea. - Azterlanaren bidez identifikatutako familia-harrerako zerbitzu edo programetan egin beharreko doikuntza eta hobekuntza kopurua. 	2009-2010
Azterlana egitea harrerako prozesuen arrakasta edo porrotaren motibazio eta arrazoien gainean.	<ul style="list-style-type: none"> - Azterlana diseinatu eta egitea. - Prozesuen porrotan eta arrakastan eragiten duten faktoreen identifikazioa. - Azterlanaren bidez identifikatutako familia-harrerako zerbitzu edo programetan egin beharreko doikuntza eta hobekuntza kopurua. 	2009-2010
Azterlana egitea ezintasun eta tutoretzari buruz.	- Azterlana diseinatu eta egitea.	2009
1.2. Jardun publikoen ondorioa ezagutzea erantzunak doitzeko.		
JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Zerbitzuen kostuei buruzko azterlana egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako azterlana. - Sailaren Zorroaren zerbitzu kopurua. Hauei dagokienez benetako balioa identifikatzen da eta jasanaraz daitekeen kostua zehazten da. 	2009-2010
Gastu sozialari eta zerbitzuen finantzaketa publikoari buruzko azterlana egitea.	- Egindako azterlana.	2009-2010
Sailaren prestazio eta zerbitzuen etengabeko ebaluazioa sustatzea eskaintza eskariaren eta gizarte beharrianen aldaketara doitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu hau jasotzen duten urteko ebaluazioak egiten dituzten zerbitzuen kopurua (eskaintzarako doikuntza ebaluatzea). - Eskaintzan sartu ahal eta behar diren egokitzapen, hobekuntza edo alderdi berritzaileen kopurua, hauek autoebaluazioaren bidez identifikatuta. 	2009-2011

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharriaren eta eskarien, bai eta arlo honetan egiten diren jardun publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.

1.2. Jardun publikoen ondorioa ezagutzea erantzunak doitzeko.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Erabiltzaileen beharriaren gogobetetze maila ezagutzea (gogobetetzeko inkestak, iradokizunen postontziak...).	<ul style="list-style-type: none"> - Beharriaren ebaluatze tresnen diseinua eta bere inplementazioa laguntzea. - Bere beharriaren ebaluazioan parte hartzen duten erabiltzaile eta senideen kopurua. - Bildutako eskarien kopurua. - Identifikatutako egokitzapen, hobekuntza edo alderdi berritzaileen kopurua. 	2008-2011

1.3. Hainbat Behatokiaren bidez errealitatea eta deribatzen diren erantzunak ezagutzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Adineko pertsonen behatokia sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartutako Behatokiaren taldeetako bilera kopurua. - Sailerako zein Behatokirako informazio garrantzitsua duten bidalketa kopurua. - Koordinatutako edo elkarlanean aritutako jarduketa kopurua (ikerketa, arazoak atzematea eta beharriaren azterketa...). 	2008-2011
Generoko Indarkeriaren eta Hirugarren Sektorearen Behatokiak dinamizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartutako Behatokiaren antolaketa eta dinamizazioa bilera kopurua. - Koordinatutako edo elkarlanean aritutako jarduketa kopurua (ikerketa, arazoak atzematea eta beharriaren azterketa...). 	2008-2011
Adineko Pertsonen, Ezintasunaren eta Haurtzaroen Behatokietan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartutako Behatokiaren bilera kopurua. 	2008-2011

1.4. Gizarte eragileekin komunikazio zuzeneko bideak mantentzea ezagutzak elkartrukatzeko.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Topaketak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Hiru Topaketa urtean eginda. - Partaide kopurua esparru eta sektoreen arabera (administrazio publikoak, gizarte eta irabazizko ekimeneko erakundeak...). 	2008-2011
Mintegiak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegi bat urtean eginda. - Partaide kopurua esparru eta sektoreen arabera (administrazio publikoak, gizarte eta irabazizko ekimeneko erakundeak...). 	2008-2011
Jardunaldiak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Hamar jardunaldi urtean eginda. - Partaide kopurua esparru eta sektoreen arabera (administrazio publikoak, gizarte eta irabazizko ekimeneko erakundeak...). 	2008-2011

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharrezanaren eta eskarien, bai eta arlo honetan egiten diren jardun publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.

1.4. Gizarte eragileekin komunikazio zuzeneko bideak mantentzea ezagutzak elkartrukatzeko.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Argitalpenak egin eta zabaltzea.	- Hiru argitalpen urtean eginda. - Argitalpenak aztertutako gaian interesa duten hartzaileei igorritako argitalpen kopuruaren doikuntza.	2008-2011
Zientziako jardunaldi, mintegi edo bestelako ekitaldietan parte hartzea.	- Urtean gai-arloko 6 jardunaldi, mintegi edo bestelako zientziako ekitalditan parte hartzea.	2008-2011

1.5. Laguntzea eta baloratzeko tresna homogeneousak abiaraztea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Mendekotasun eta ezintasuna baloratzeko tresnen berrikuspenean laguntzea.	- Estatuan eta autonomian mantendutako bilera kopurua.	2008-2011
RAI balorazioko tresna ebaluatzea arreta eskaintzeko pertsonarengan zentratuta ezintasunaren arloan.	- RAIren predikzioko gaitasunari buruz egindako azterlana ezintasunaren forma ezberdinen arloan.	2009
Beharrezaneko Gizarte Adierazlea berrikustea.	- Egindako azterlana. - ISNAren bertsio berria eginda.	2009
Abiarazitako eskulio baliabideetara jotzeko sistemak ebaluatzea.	- Ebaluazioa eginda. - Identifikatutako jotzeko sistemen doikuntza eta hobekuntza kopurua.	2009
Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea haurren babes gabeziako egoerak zehazteko tresnaren diseinuan (Balora).	- Parte hartutako bilera kopurua.	2009-2010

1.6. Sailaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa Eguneratzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea Sailaren jardun-esparru guztietan.	- Egindako aldaketa kopurua beharrezanetan, araudian (mendekotasunari buruzko legea) eta gizarteko testuinguruan egondako aldaketen arabera, bestelako administrazio publikoekin elkarlanean eta IFAS, ITB eta erakunde laguntzaileek parte hartuta. - Prestazioak eta zerbitzuak beste Foru Aldundi batzuenekin harmonizatze helburuz egindako aldaketa kopurua EAE osorako balizko Zorro komun baten esparruan.	2008-2011

1. HELBURU OROKORRA. Gizarte errealitatearen, hiritarren beharrezanaren eta eskarien, bai eta arlo honetan egiten diren jardun publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea, hauek modu planifikatuan hobetu eta egokitzeko helburuz.

1.7. Gure prestazio eta zerbitzuetan laguntzako etikaren kultura ezartzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Etika Batzordea kontsolidatzea Gizartegintzan.	- Egindako bileren eta Batzordeak erantzundako kontsulten kopurua.	2008-2011
Gizartegintzako etikako batzorde berriak sor ditzaten bultzatzea Bizkaiko erakundeetan.	- Egindako ekintza kopurua. - Sortutako batzorde kopurua.	2008-2011
Profesionalak laguntzako etikaren oinarri eta prozeduretan sar daitezen ahalbidetzea.	- Egindako jardun kopurua (inkestak, materialen hedapena, jardunaldiak, mintegiak, prestakuntzako ekintzak...). - Parte-hartzaile kopurua esparru eta sektoreen arabera (administrazio publikoak, ekimen pribatua).	2008-2011

1.8. Sailaren jardun-eremu guztiak planifikatzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Jardun Planak egitea ezintasuna duten pertsonentzat: ezintasun fisikoa duten pertsonak, buruko eritasuna duten pertsonak eta adimen-urritasuna duten pertsonak.	- Ukitutako biztanle-eremuak. - Egindako plan kopurua.	2008
Plan Gerontologikoaren jarraipena egitea.	- Egindako urteko balorazio txostenak. - Jarraipeneko prozesuetako parte-hartze maila (batzordearen bilera kopurua eta parte hartzen duten pertsonak sektoreen arabera). - Planean sartutako egunerapen kopurua.	2008-2011
Zahartze Aktiboko Plana egin eta onestea.	- Zahartze Aktiboko Foru Plana idatzita. - Bere idazketaren parte-hartze maila (egindako bilera kopurua eta parte hartzen duten pertsonak sektoreen arabera).	2008-2011
II. Haurtzaro Planaren jarraipena egitea.	- Egindako urteko balorazio txostenak. - Egindako bilera kopurua eta parte hartzen duten pertsonak sektoreen arabera. - Planean sartutako egunerapen kopurua.	2008-2011
Jardun-planak egitea gizarteratzearen arloan (laneratzea, etxerik gabekoak, etab.).	- Ukitutako biztanle-eremuak. - Egindako plan kopurua.	2008-2011
ITB-ren jardun-plana egitea.	- Jardun Plana eginda.	2009
BIDEAK-en jardun-plana egitea.	- Jardun Plana eginda.	2009
IFAS-en jardun-plana egitea.	- Jardun Plana eginda.	2008
Mugikortasun eta Garraio Irigarriko Planaren prestaketan laguntzea.	- Plana prestatzeko Garraio eta Hirigintza Sailarekin egindako koordinazioko bilera kopurua.	2008-2009
Eusko Jaurlaritzaren plan guztien idazketan laguntzea.	- Parte hartutako plan kopurua.	2008-2011

2. HELBURU OROKORRA. Zerbitzuak aztertu, kontsolidatu eta handitzea adineko pertsonen eta ezintasuna duten pertsonen, babesgabeko arrisku-egoera larrian dauden adin txikiko pertsonen, gizarte beharrianak dituzten emakumeen, esklusioko arriskuko pertsonen arloan, bai eta eremu soziosanitarioari dagozkionak ere.		
2.1. Adineko pertsonen eta ezintasuna duten mendeko pertsonen arretara zuzendutako zerbitzuak handitu eta hobetzea.		
JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Plan gerontologikoa eta ezintasuneko planak garatzea.	- Planetan aurreikusitako jarduketak egitea eta aurreikusitako helburuak lortzea.	2008-2011
Egoitza eta eguneko zentroetako plazen eskaintza doitzera adineko pertsonen premietara.	- Plazen eskaintza premietara doitzera: eskualdeko estaldura lortzea %5 eta %1ean. - Bete gabe dauden plaza kopurua. - Itxaronzerrendan dauden pertsona kopurua.	2008-2011
Ezintasuna duten pertsonentzako egoitzako eta eguneko zentroetako plazen eskaintza handitu eta dibertsifikatzea.	- Estaldura honakoa: 13 plaza/10.000 biztanleko (18 eta 65 urte bitartean).	2011
Aurretik prestatutako planei erantzuna ematen dien Azpiegitura Plana garatzea (ERANSKINA).	- Azpiegitura Plana burutzea.	2008-2011
Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako baliabideen eta laguntza teknikoaren zentroa abiaraztea.	- Abiarazitako Laguntza Teknikoen Zentroa. - Arreta jasotako pertsona kopurua modalitatearen arabera.	2008-2011
Eguneko zentroen gaineko araudia aldatzea hauen erabilera zabaltzeko, arretako modalitateak zabalduz, ordutegiak malgutuz, kasu batzuetan zerbitzuaren prestazioa asteburuetan hasiz.	- Eguneko zentroko arretari buruzko foru dekretu berriak.	2009
Programak garatzea, bai eta beharrezko baliabideak ere, adineko pertsona bere ingurune familiarrean gera dadin.	- Foru programa hauetako mendeko adineko pertsonen kopurua. - Garatutako Foru Dekretu kopurua.	2008-2011
Landako zentro balioaniztunen irudia sustatzea.	- Inbertsioko prozesuan diruz lagundutako LZB kopurua. - "Landako Zentro Balioaniztuna" dokumentua eginda. - Garatutako LZBak mantentzeko politikak.	2008-2011
Alzheimer eta antzeko bestelako demenziak dituzten pertsonen arreta psikosozialeko zentroa sortzea.	- Arreta psikosozialeko zentroa sortuta. - Arreta jasotako pertsona kopurua. - Abiarazita dauden esperimenezko programa kopurua.	2009-2011
Eguneko arretarako baliabide mota berria abiaraztea adimen-urritasuna duten adineko pertsonentzat.	- Eguneko arretako modalitateak. - Abiarazitako baliabide berria.	2008-2011

2. HELBURU OROKORRA. Zerbitzuak aztertu, kontsolidatu eta handitzea adineko pertsonen eta ezintasuna duten pertsonen, babesgabeko arrisku-egoera larrian dauden adin txikiko pertsonen, gizarte beharrianak dituzten emakumeen, esklusioko arriskuko pertsonen arloan, bai eta eremu soziosanitarioari dagozkionak ere.

2.1. Adineko pertsonen eta ezintasuna duten mendeko pertsonen arretara zuzendutako zerbitzuak handitu eta hobetzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Senideentzat arnasa hartzeko programak garatzea, aldi baterako egonaldiekin bete beharreko egoitzako plazak erabiliz.	- Arreta jasotako pertsona kopurua urteko (egonaldia egiten dutenak). - Urteko egonaldi kopurua.	2008-2011
Aisia eta astialdiko eskaintzak garatzea ezintasuna edo mendetasuna duten pertsonentzat erakundeekin egindako hitzarmenen bidez, eta, beharrezkoa bada, programa mota hauek sustatzea.	- Arreta jasotako pertsona kopurua urteko. - Diruz lagundutako hitzarmen edo programa kopurua. - Zuzendutako aurrekontua.	2009-2011
Jarduketa zehatzak garatzea garraio irisgarriaren hobekuntzan.	- GESari dagozkion Mugikortasun eta Garraio Irisgarritasun Planaren ondorioak.	2009-2011
Tutoretzako zerbitzua egitea beharrezko diren kasuetan.	- Tutoretza kopurua.	2008-2011

2.2. Ezintasuna duten pertsonen autonomia sustatzera zuzendutako zerbitzuak eta baliabideak handitu eta hobetzea.

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
Autonomia pertsonala sustatzeko programak garatzea.	- Programa kopurua. - Pertsona onuradun kopurua.	2008-2011
